






PERTSONEN OSASUNA HELBURU



Eusko Jaurlaritzak, gizarte-politiketan duen konpromisoari esker, dirulaguntzak ematen ditu koordainketa farmazeutikorako, Euskadin beharrezko duen inork osasun-tratamendua ez uzteko eta pertsona horren osasuna eta populazioarena bermatzeko aldi berean. Indarrean jarri zenetik, 2013ko uztailean, Eusko Jaurlaritzak 27,7 milioi euro bideratu ditu koordainketa laguntzetarako.



NORK ESKA DITZAKE?



Gizarte Segurantzako **pentiodunek** (eta bere onuradunek), baldin eta 18.000 € baino gutxiagoko urteko errentak badauzkate eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-txartela badaukate (OTI).



MUFACE, MUGEJU edo ISFASeko **pentiodunek** (eta bere onuradunek), baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldaturik badaude eta 18.000 € baino gutxiagoko sarrerak badituzte.



Legezko langabezia-egoeran **daudenek** (eta bere onuradunek), baldin eta Euskadin erroldaturik badaude eta 18.000 € baino gutxiagoko sarrerak badituzte.



Beren laneko errentak **osatzeko diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen badute** eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-txartela badaukate (OTI).



Espainiako Estatuan **erregistratu gabe** edo **egoiliar gisa baimendu gabe dauden atzerritarrak** Euskal Autonomia Erkidegoak eskubide hori aitortzeko emandako egiaztatzea badute.



ESKABIDEAK

Eskabidea egiteko, inprimaki bat bete eta aurkeztu behar da. Honako lekuetan aurki daitezke:

- Osakidetza **osasun-etxeetan edo anbulatorioetan**.
- Osasun Sailaren **lurralde-ordezkaritzetan**: Gasteizen, Bilbon eta Donostian.
- **Zuzenean** zerbitzuko arreta-guneetan.
- **Eusko Jaurlaritzako web** orrian:

www.euskadi.eus

➤ Osakidetza **web** orrian:

www.osakidetza.euskadi.eus

Euskadin egindako gastu farmazeutikoak badira, eskabide eredu erraztua aurkeztuko da eta honako hauek zehaztuko dira:

- Datu pertsonalak.
- Bankuko kontu-zenbakia.

Euskaditik kanpo egindako gastu farmazeutikoak badira, eta eskatzaileak **mutualitateetako pentiodunak** badira, eskabide eredu ohikoa aurkeztuko da eta honako hauek erantsi:

- Erosketa-tiketak.
- Tratamendu-orriak edo sendagai-errezetak.
- Laguntza jasotzeko eskubidea egiaztatzen duen dokumentua (Mutualitateetako eskatzaileek soilik)



ESKABIDEA EGITEKO

EPEAK ETA ORDAINKETAK

Eskabide erraztua urtean behin baino ez da aurkeztu behar. Eskabide ohikoa urtean bi aldiz aurkeztu ahal izango da, gehienez ere.

Eskabideak aurkezteko epea abenduaren 10era arte egongo da zabalik urtero.

Eskabide erraztua ekainaren 10ean edo lehenago aurkeztu bada, laguntza bi ordainketetan jasoko da. Ekainaren 10a eta gero aurkeztu bada, ordainketa bakarrean jasoko da laguntza abenduan, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren.

Nolanahi ere, **ordainketa banku-transferentzia bidez egongo da, eskabidean adierazitako kontu-zenbakian.**